

# SE NOURRIR • ELIKATU • NEURÍ'S



**Garantir à toutes et tous  
l'accès à une alimentation  
saine et locale.**

Prezioen eta alokairuen emendatze azkarraren parean, famili anitzei zaila zaie hazkurri sanoa lortzea eta batzuetan janariaz pribatzen dira. Ez dugu hazkurri prekarietatea arrunta bilakatzen utziko Baionan!

Janaria, eros daitekeen moduan bat baino gehiago baita, gure hazkurriaren eragile izan behar dugu denei hazkurri sano eta iraunkorraz gozatzeko aukera bermatu nahi baldin badiegu.

Eta oraindik larrituko den osasun eta klima testuinguru honetan, errealitateari aurre egiten diogu eta agertuko diren desafioak elkarrekin aitzin-ikusteko baliabideak sortuko ditugu.

## Gure proposamenak:

### **a. Hazkurri prekarietatea borrokatu**

*Baionan, lehentasunez jardungo dugu guzietan kalitatezko hazkurriaz gozatzeko aukera emateko. Horretarako, ondokoa proposatzen dugu:*

- Eskolako jantegiaz denei gozatzeko aukera eskaini. Jantegiaren tarifikazio soziala azkartuko dugu diru sarrera apalak dituzten gurasoek ez daitezen 5,5€-ko prezio gorena ordaintzera behartuak izan.
- Uraren prezio justuagoa eta elkarkidea: merkeago funtsezko beharretarako, progresiboagoa kontsumo azkarretarako (prezio progresiboen edo ur-txeke baten bitartez).
- Hazkurri prekarietatearen aurka borrokatu laguntza elkarrekin koordinatuz, Laguntza Sozialeko Herriko Zentroaren bitartez (LSHZ) eta janari-edari saltegi solidario berriak plantatuz.
- Hazkurriaren Segurtasun sozialaren ideian oinarritu hazkurri laguntza dispositiboa esperimentatu, tokiko ekoizle eta euskoarekin loturan.
- Hozkailu solidarioak plantatu auzotegietako etxeetan eta kanpusean.

## b. Nor bere hazkurriaren eragile izan

*Osasunean ondorio zuzena dute hazkurri sanoaz gozatzeko desberdintasunek. Izan ere, hazkurriari lotu patologia (obesitatea, diabetesa, eritasun kardiobaskularrak, minbiziak...) gehiago jasaten dituzte estatus sozio-ekonomiko apaleko pertsonak. Ez da halabeharra, gure hazkurriaren eragile izateko aukera guziak baliatuko ditugu.*

- Nutrizio/osasun atala garatu Euskal Herriko Tokiko Osasun Kontratuaren baitan, kasu eginez tokiko ekoizpenari egokitua izateari eta denek gozatzeko aukera ukan dezaten.
- Sukaldaritza ateleriak eta apairu kolektiboak publiko desberdinentzat plantan ezarri (hazkurri laguntzaren hartzedunak, eskolako haurrak, adineko pertsonak...) sukaldatzeko molde sinpleak, sanoak, ekonomikoak sustatzeko eta jendeen arteko lokarria sortzeko.
- Pass'Famille et Aidants bat sortu Lille-n bezala, ahaideak eta laguntzaileak aparka daitezen, seniorrek eta mugikortasun urriko pertsonak etxean jateko parada ukan dezaten, eta bakartasunaren aurka borrokatzeko.
- Eskolako jantegietan bio eta tokiko mozkinen parte azkarki emendatzeko helburuari eutsi eta menu begetariano gehiago eskaini.
- Sukaldaritza kultur aktibitateetan sarrarazi tokiko baliabideei egokia zaien gastronomia sustatuz.
- Eskola eta etxaldearen arteko loturak azkartu: bio hondakinak berreskuratuz ikastetxeetan, baratzezaintza klaseak, baratze pedagogikoa (lurretik platerera)...
- Sentsibilizatzea herri laborantzak Ipar Euskal Herrian duen zereginaz (osasuna, kultura, lurralde oreka, paisaien zaintza...).
- Konpostatze gune kolektiboak biderkatu.

## c. Hazkurri auto-ekoizpena emendatu eta tokiko ekoizpenerako bideak ireki

*Hazkurri auto-ekoizpen aukerak oraindik azpi ustiatuak dira Baionan eta hauek garatzea proposatzen dugu, tokiko laborantza ekoizpenerako bideak irekiz, aldi berean.*

- Jadanik dauden guneez gain (Bécadine, Chauron eta Saint-Bernard), familia baratze eremu berria identifikatu eta antolatuko dugu, beti gora doan eskaerari erantzuteko gisan. Lurraldeko langileek kudeatuko duten herriko etxalde bat sortzeko aukera aztertuko dugu ere (laborantza zuzendaritza).
- "Hiri Elikagarri" programa biderkatu: lehentasuna emanen diogu 2024an aurreikusi planaren plantan ezartzeari. Horretan sartzen da hiriko fruitu baratzeen garatzea, janari paisaiak integratuz eta baratze partekatu berriak sortuz eremu publikoan.
- Lur zatiak dituzten pertsonak baratzean arizan nahi dutenen esku uztera bultzatu, ekoizpenaren zati baten truke adibidez. Biztanleen etxeek laguntza ekar dezakete sistema hau plantan ezartzeko.
- Arkeologia formakuntzak plantan ezarri Biztanleen etxearen bitartez: ingurumena errespetatzen duen ekoizpena sortzeko funtsezkoak diren trebetasunak transmititzeko arkeologia teknikez jabetzeko urririkako formakuntza saioak proposatu.
- Tokiko ekoizleei zuzendu logistika plataforma mutualizatu baten plantan ezartzea sostengatu eta manatze publikoa bildu, Euskal Herriko Hazkurri Proiektuak gomendatu bezala.
- Tokiko ekoizle eta kontsumitzaileen arteko lotura azkartu, jadanik dauden hainbat dispositiboetan bermatuz: Eusko tokiko moneta, Amap, erosketa eta ekoizle bilguneak...

#### **d. Gure hazkurri burujabetasun eredua eraiki**

*Herri laborantza bizkorra atxikitzen jakin du Ipar Euskal Herriak. Laborantza hau sendoa, enplegu sortzailea da eta ez du anitz kutsatzen, baina gaur egun lur funts espekulazioa eta beroketa klimatikoak mehatxatzen dute. Kolektiboki sostengatu behar dugu eta honen trantsizioa lagundu gure hazkurri burujabetasunaren zati nagusietakoa izan dadin, eta horretarako:*

- Herri laborantza sostengatu lur funts espekulazioaren aurka:
  - Laborantza lurak segurtatu indarrean dagoen Tokiko Hirigintza Planean oraindik laborantzakoak bezala zehaztuak diren lur zatiak atxikiz.
  - Plantatze proiektuak laguntzeko laborantzako lurak erosten dituen Lurzaindia gisako egituren ekintza baliabideak azkartu.
- Laborantzaren trantsizioa laguntzen dituzten tokiko ekimenak eta formakuntzak sostengatu eta sail aldaketak eta dibertsifikazioak lagundu.
- Etxaldean transmisioa eta laborari berrien plantatzea sustatu, Hiriguneak berrikitan bozkatu eta Laborantza eta Hazkurri Erakunde Publiko batera buruz lehen urratsa den Ipar Euskal Herriko Laborantza eta hazkurri kontseiluan bermatuz.
- Mozkinen tokiko transformazioa sostengatu.
- Enpoilketa apalarazi, zero hondakin ekimena aitzinera ekarriz eskoletako jantegi eta erakunde publikoetan.

#### **e. Osasuna, klima eta bioaniztasuna galtzeko arriskuak aitzinetik ikusi eta mugatu**

*Azken urte hauetan jasan ditugun 2022ko idorteak eta epizootiek andeatu dute Euskal Herriko laborantza eta gure hazkurri sistemaren iraunkortasuna galdekatzen dute. Krisi hauen biderkatzea ez badugu aitzinetik kontutan hartzen, gure jendartearen kohesioa bera da zalantzan ezarria izanen. Garrantzitsua da beraz:*

- Erabilpen aurkakotasunak aitzinetik ikustea, uraren ingurukoak besteak beste (laborantzaren, industriaren, turismoaren... beharren arteko auziak). Gai honi buruzko hirigunearen izariko herritar konbentzio edo biltzar bat antolatzea proposatzen dugu.
- Laborantza praktika onak saritu kutsadura kentze, osasun edo paisaia ingurumen arloan ekartzen dituen aurrezpenetarako, Île de France-n egiten den bezala, adibidez.